

**KITAPENA-EGONKORTASUNARI, ZORRARI ETA GASTUAREN ARAUARI BURUZKO
TXOSTENA, AURREKONTUAREN KITAPENAREN ONARPENEAN**

Kontu-hartzailletza honi 2019urterako aurrekontu orokorraren kitapena onartuta, txosten hau 1463/2007 Errege Dekretua, azaroaren 2koa, Aurrekontu Egonkortasunari buruzko 18/11 Legea toki-erakundeei dagokienez garatzeko erregelamendua onesten duenaren 16.2 artikuluan xedatutako agindua betez egin da.

10/2003 Foru Araua, abenduaren 2koa Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko 5.artikuluak hau xedatzen du:

“Aurrekontuak onartzea eta exekutatzea aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko esparru batean egingo dira, eta esparru hori koherentea izan behar da Europako araudiarekin”.

5/2013 Foru Araua ekainaren 12koa, Bizkaiko Toki-erakundeen Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko 6. Artikuluak hau xedatzen dau:

: “Tokiko erakundeak bere aurrekontuak aurrekontu-egonkortasunaren helburua, zor publikoaren helburua edo gastuaren araua bete gabe egiten, onartzen edo gauzatzen baditu, helburu horiek edo gastuaren araua ez-betetzea gertatu den ekitaldian edo hurrengoan betetzea bermatzen duen ekonomia eta finantza plan bat egingo du” eta, beraz, sensu contrario, printzipioz, helburu horiek betez onartu behar da aurrekontua, exekuzioa eta kitapena..

Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluaren 2018ko urriaren 30eko datako erabakiaren bidez, hauek ezarri ziren egonkortasun eta zor helburu gisa eta gastuaren arauaren muga gisa administrazio publikoaren sektorea osatzen duten erakundeentzat:

- Aurrekontu oreka lortzeko helburua: 0,00
- Zor-publikoaren helburua, diru-sarrera ez finantzarioei dagokienez zor publikoak adierazten duen gehieneko ehunekoa: %60
- Gastu-araua, gastu ez-finantzarioen aldaketeren ehunekoa: %2,7

Helburu horiek eta gastuaren araua betetzen diren neurtzeko zenbaki finkatuak erabiltzen dira, 1463/2007 Errege Dekretua, azaroaren 2koa, Aurrekontu Egonkortasunari buruzko 18/11 Legea toki-erakundeei dagokienez garatzeko erregelamendua onesten duenaren 4. artikulua xedatzen duenez erakunde hauentzat: Bermeoko Udala, Kirol Udal Patronatua, Gizarte Ongizaterako Udal Patronatua, eta Beruala S.A.rentzat.

Gaurko datuen ez dira sartzen Beruala S.A.ko datuak auditoria prestatzen ari direlako, eta Kontu Orokorra aurkezten denerako atxikitsuko dira.



Egonkortasuna

Erakundea	Sarrera ez-finantzarioa (1.-7. kap.)	Gastu ez-finantzarioa (1.-7. kap.)	Europako kontu s.		Erakundearen finan. gait./behar.
			Erakundearen beraren doikuntzak	Barne eragiketengatiko doikuntzak	
Bermeoko Udala	21.025.858,14	19.030.725,41	-493.241,83	2.652.305,07	4.154.195,97
Kirol Patronatua	1.126.319,19	1.247.023,67	-7.602,26	-501.416,81	-629.723,55
Gizarte Ongizateko Udal Patronatua	5.312.104,18	5.151.966,70	-12.349,17	-2.150.888,26	-2.003.099,95
Guztira	27.464.281,51	25.429.715,78	-513.193,26	0,00	1.521.372,47
<i>Onartutako ekonomia eta finantza planaren helburua</i>					

GASTUAREN ARAUA

Erakundea	x-1 ekitaldiko gastu konputagarria	Onartutako hazkunde tasa	Bilketa gehikuntzak eta murrizketak	Gastuaren arauaren muga	x ekitaldiko gastu konputagarria
Bermeoko Udala	12.945.370,33 €	13.294.895,33 €	0,00	13.294.895,33 €	14.531.214,30 €
Kirol Patronatua	1.172.330,41 €	1.203.983,33 €	0,00	1.203.983,33 €	1.247.023,67 €
Gizarte Ongizateko Udal Patronatua	2.248.778,75 €	2.309.495,78 €	0,00	2.309.495,78 €	2.467.951,42 €
Guztira	16.366.479,49 €	16.808.374,44 €	0,00	16.808.374,44 €	18.246.189,39 €
<i>Onartutako ekonomia eta finantza planaren helburua</i>					



Hau da x-1 (2018) ekitaldiko gastu konputagarriaren xehetasuna: 16.808.374,44.-€

Hau da x ekitaldiko gastu konputagarriaren xehetasuna: 18.246.189,39.-€

Horrek suposatzen du gastu konputagarriaren eta gastu arauaren mugaren arteko aldea 1.437.814,95 euro izan dela, hau da gastu konputagarriaren gehikuntzaren ehuneko 11,49. Hau da, %2,7 baino gehiago izan ez gero, ez da betetzen kitapenean gastuaren araua.

Gastu handitzea %11,49 izan da 2018tik etorritako Diruzaintzako gerakenagatik. Kasu horietan, eta beti ere kontuan hartuta 5/2013 FORU ARAUA, ekainaren 12koa, Bizkaiko Toki-Erakundeen aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzkoaren 6.5 artikulua:

"Toki-erakunde batek zor publikoko helburua betetzen bada, baina ez bada betetzen edo egonkortasuneko helburua edo gastu-araua, diruzaintzako geldikinarekin finantzatu dituelako erakundearen finantza-iraunkortasuna arriskuan jartzen ez duten gastuak, bada, erakunde horrek, beti ere aurrekontua aurrezki garbi positiboarekin likidatzen bada, 3. artikuluko 4. zenbakian zehaztutakoaren kalterik gabe, kontu-hartzaitzako eginkizunak betetzen dituen organoaren txosten batekin ordezkatu ahal izango du plan ekonomiko-finantzarioa, eta txostenaren berri eman behar zaio beti Osoko Bilkurari.

Kontu-hartzaitzako eginkizunak betetzen dituen organoaren txosten horretan hauek zehaztuko dira:

- a) Finantzatzeko gastuek ez dutela erakundearen finantza-iraunkortasuna arriskuan jartzen.*
- b) Aurreko urteko ekitaldiaren likidazioa gastu orokorretarako diruzaintza gerakinaren bitartez eta aurrezki garbi positiboaren bitartez egin dela.*
- c) Urte bakoitzerako finkatutako zor helburua betetzen dela.*
- d) Egonkortasuneko helburua edo gastu-araua ez duela betetzen, diruzaintzako geldikinarekin finantzatu dituelako erakundearen finantza-iraunkortasuna arriskuan jartzen ez duten gastuak.*
- e) 3.4 artikuluan xedatutakoa, kasua bada, bete egiten dela.*

Aurrekontuak onartzeagatiko finantzarioak ez diren erabilerek urteen artean izaniko ekitaldien arteko aldaketak kalkulatzeko, bada, ez dira deskontatuko diruzaintzako geldikinarekin finantzatutako gastuak. "



ZOR PUBLIKOA

Erakundea	Zorraren jaulkipena	Eragiketak kreditu erakundeekin	Baliabiderik gabeko factoringa	Administrazio publikoen maileguak	Beste kreditu eragiketa batzuk
Bermeoko Udala		6.555.694,96 €			
Kirol Patronatua					
Gizarte Ongizateko Udal Patronatua					
Guztira		6.555.694,96 €			
<i>Sarrera ez-finantzarioak</i>					24.811.976,44 €
<i>Zor bizia/ sarrera ez-finantzarioak guztira</i>					26,42%
<i>Sarrera arruntak</i>					23.490.095,25 €
<i>Zor formalizatua+zor bizia</i>					7.245.631,98€
<i>Zor formalizatua+zor bizia/sarrera arruntak</i>					30,85%

Zor Publikoaren araua bai betetzen da; nahiz eta, Berualako datuak ez batu kitapena baloratzeko orduan zorra bai hartzen da kontuan, horregatik 6.555.694,96 euroko zorra zatitzen da:

- Udaleko zorra 2019ko abenduaren 31n: 3.355.701,19 euro.
- Berualako zorra 2019ko abenduaren 31n: 3.199.993,77 euro.

Bizkaiko Foru Aldundiko 90/2013 Dekretuak epe luzerako zor-eragiketen ondoriozko kapital bizia gutxitzeko portzentajea finkatzen duenak, bere 2.artikuluak esaten du:



"Bizkaiko toki-erakundeen aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko ekainaren 12ko 5/2013 Foru Arauaren 3.artikuluko 4.zenbakian ezarritakoaren arabera, ekitaldia ixtean geratzen zaien finantzaketa ahalmena (Nazio eta Eskualdeetako Kontuen Europako Sistemak emandako definizioaren arabera) epe luzerako zor-eragiketen ondoriozko kapital bizia gutxitzeko erabili behar duten toki-erakundeek eskala hau erabili beharko dute:

- a) *Epe luzerako zor-eragiketen ondoriozko kapital biziaren diru-sarrera korrante kontsolidatuen gaineko portzentajea %35 edo gutxiago bada, ez dute murriztu beharko kapital bizia aparteko amortizazioekin.*
- b) *Epe luzerako zor-eragiketen ondoriozko kapital biziaren diru-sarrera korrante kontsolidatuen gaineko portzentajea a) letran aipatutakoa baino handiagoa baina %45 edo gutxiago bada, Nazio eta Eskualdeetako Kontuen Europako Sistemak emandako definizioaren arabera finantzaketa-ahalmenaren %20 kapital bizia gutxitzeko erabiliko dute.*
- c) *Epe luzerako zor-eragiketen ondoriozko kapital biziaren diru-sarrera korrante kontsolidatuen gaineko portzentajea b) letran aipatutakoa baino handiagoa baina %60 edo gutxiago bada, Nazio eta Eskualdeetako Kontuen Europako Sistemak emandako definizioaren arabera finantzaketa-ahalmenaren %50 kapital bizia gutxitzeko erabiliko dute.*
- d) *Epe luzerako zor-eragiketen ondoriozko kapital biziaren diru-sarrera korrante kontsolidatuen gaineko portzentajea c) letran aipatutakoa baino handiagoa bada, Nazio eta Eskualdeetako Kontuen Europako Sistemak emandako definizioaren arabera finantzaketa-ahalmenaren %100 kapital bizia gutxitzeko erabiliko dute."*

Aurton ez daukagu zertan finantzaketa ahalmena (Nazio eta Eskualdeetako Kontuen Europako Sistemak emandako definizioaren arabera) epe luzerako zor-eragiketen ondoriozko kapital bizia gutxitzeko erabili behar kapital biziaren diru-sarrera korrante kontsolidatuen gaineko portzentajea %35 baino gutxiago delako.

Udalbatzako osoko bilkurari eman behar zaio txosten honen berri ezagut dezan.

Bermeon 2020ko maiatzaren 11

Behin behineko kontu hartzailea



